

UDALAK 2012ko URTARRILREAN 27AN EGINDAKO OHI KANPOKO OSOKO BILKURA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko urtarrilaren 27an ohi kanpoko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, 08:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTU HARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- UDALERRI TALDE BATEK KUTXAKO GOBERNU ORGANOEN IZENDAPENERAKO EGINDAKO PROPOSAMENA.-

Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak idazki bat bidali du haren gobernu organoak izendatzeko prozedurari buruz.

Ogasun eta Ondare Batzordeak-Kontuetaarako Batzorde Bereziak 2012ko urtarrilaren 24an egindako bileran udalerrien elkartea eratzearen aldeko irizpena eman du.

Horiek horrela, Udalbatzak Barrio (H1!) jaunaren kontrako botoarekin, honako hau erabaki du:

Behean aipatuta datozen udalerriekin batera udalerrien elkarte bat eratzea, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxako gobernu organoaren izendapenatarako.

Hernani-Oiartzun-Lezo-Astigarraga-Villabona-Lizartza-Mendaro-Usurbil-Mutriku-Zaldibia-Ataun-Ibarra-Ordizia-Legorreta.

2.- KUTXABANK MOZIOA.

Bilduk aurkeztu duen honako mozioa aztertu da:

“Gipuzkoako Kutxako Administrazio Kontseiluak hartutako erabakien bidez Kutxabank entitate berrirako ordezkari berria adostu eta Gipuzkoako Kutxari dagokion ordezkari murriztu da eta, horren ondorioz, Gipuzkoako Kutxako ordezkari bakarrik ez, gipuzkoar guztia ere murriztu da. Hori ikusita, udal talde honek MOZIO hau aurkezten du azter eta onar dadin:

1- Arbuiatzen dugu Administrazio Kontseilua bakarrik bi indar politikoren artean gainerako alderdi politikoak bazter utzita osatzeko erabakia, horrek Kutxabank entitate berriaren kontrol erabatekoa eta baztertzaila ematen baitie erabaki hori hartu dutenei.

2- Eskatzen dugu euts dakiola Kutxabank eratzeko lortutako adostasunari, hiru kutxen biltzarretan babes zabala jaso baitzuen, euskal gizartearen eta errealitate instituzionalaren ordezkari anitz, adierazgarri eta proportzionala bilatuz Kutxabank gizartearen eta herri honen zerbitzura dagoen entitatea izan dadin.

3- Exijitzen dugu errespetatu dadila Kutxabank entitate berriaren lehen adostuta zegoen ordezkari, kutxen biltzarrek joan den irailean onartu zutena eta, beraz, ez dadila ordezkari murrizketarik onar, Kutxaren kalterako ez ezik Gipuzkoa osoaren eta gipuzkoar guztion kalterako izango baita.”

Udalbatzak, Barrio (H1!) jaunaren kontrako botoarekin, onartu egin du.

3.- GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN MOZIOA.- "Hernaniko AHTren Aurkako Asanblada".k aurkeztu duen honako mozioa aztertu da:

GIPUZKOAN AZPIEGITURA-LAN HANDIAK **GELDIARAZTEAREN ALDEKO MOZIOA**

Urteak dira erakunde publikoetatik ingurumenean, gizartean eta ekonomian izugarriko eragina duten azpiegitura-lan handien aldeko apustua egiten hasi zirela. Apustu horrek garapen-eredu jakin bat bultzatu du eta,aldi berean, pixkanaka argumentuz hustutako eta itxura hutsean oinarritutako gizarte-eredua hedatu da. Heritarron ongizatea eta ingurumenarekiko errespetua ardatz dituen ereduaren alde urteetako lana egin dugun herri-mugimendu eta taldeok Gipuzkoa mailan bat egin eta azpiegitura-lan handiak gelditzeko eta garapen-ereduaren aldaketa sakon baten beharra aldarrikatzeko informazio, hausnarketa, eztabaida eta mobilizazio dinamika berria jarri dugu abian. Hala, dinamika horren buruan, datorren otsailaren 4an, Donostian, elkarrekin deitu dugun manifestazioa genuke.

Adierazi behar da, Gipuzkoan baterako dinamika bultzatzearen arrazoi nagusietako bat, azken hileotan orotariko azpiegitura-lan handien alde herrialde honetan burutu duten kanpaina politiko eta mediatiko bortitza izan dela. Kanpaina horretan, besteak beste, Abiadura Handiko Trena, Erraustegia, Makroespetsua, Jaizkibelgo Superportua edota Hondarribiko aireportuaren hedapena jarri dituzte Gipuzkoaren etorkizuna bermatzeko ezinbesteko elementutzat. Horretarako ordea, ez dute inola ere, azpiegitura-lan handi horiek ingurumenean, jendartean eta ekonomian izango lituzketen kalteen inguruko eztabaida sozialik egin, ez eta egiten utzi ere, are gehiago, ekonomia mailan hain ezkorra den testuinguru honetan.

Hala, garapen-eredu jakin hori edota garapena bera zalantzan jartzeko joera handiagoa antzematen ari gara gizartean. Herri-mugimenduek behin eta berriz salatu dituzte "interese orokorraren" izenean, batere errentagarritasunik gabe lan-baldintzen prekaritatea bultzatzen duten gutxi batzuen intereseko azpiegitura megalomanoak, eta argi geratu da herri-mugimenduok geure bidea egin eta herritarrak mobilizatzen jarraitu behar dugula, informazioa zabaltzearen, jendarte eredu aldatzaren eta egitasmo horiek geldiaraztearen aldeko lanean. Edozein eratan, bizi dugun krisiladi ekonomikoaren ondorioz, azpiegituren inguruko eztabaida herrialde guztietan berriro piztu denean, gure ustez funtsezkoa da egungo garapen-eredua aldatze aldera orain arte inoiz burutu ez den gizarte eztabaida hori bultzatzea.

Horregatik guztiagatik AHTaren Aurkako Asanbladaren izenean, Hemaniko Udaleko Udaltzari, honako erabaki hauek har ditzan eskatzen diogu:

1. Udal honek, otsailaren 4an, larunbatean, hainbat herri-mugimendu eta taldek deituta, arratsaldeko 5:30ean, Donostiako Boulevardetik "GIPUZKOA DESBERDIN BATEN ALDE, JENDARTE EREDUA ALDATU: AZPIEGITURA-LAN HANDIAK GELDITU!" lemapean aterako den manifestazioarekin bat egiten du eta herritarrei parte hartzeko deia egiten die.
2. Udal honek bat egiten du ingurumenean, jendartean eta ekonomian sekulako eraginak dituzten azpiegitura-lan handiak geldiaraztea eta horien inguruan gizarte-eztabaida bultzatzea ezinbestekoa delako ideiarekin eta, beraz, konpromisoa hartzen du bere esku dagoen guztia egiteko herritarrak informatzeko, eztabaida-guneak irekitzeko eta hitza emateko. Azken

urteotan gailendu den politika egiteko moduak herritarrak ikusle huts bihurtzera kondenatu ditu eta herritarrak beren etorkizunaren jabe izan daitezzen, erakundeek gardentasuna, zuzentasuna eta parte-hartzea izan behar dute oinarri. Gainera, Udal honek bere buruarekiko ez ezik, azpiegitura-lan handien arloan eskumenak dituzten gainerako erakundeei azpiegitura horien inguruko gogoeta egin eta gizarte-etzabaidari bide emateko eskaera egiteko konpromisoa hartzen du.

3. Udal honek, erraustegiaren proiektua behin betiko bertan behera uztea eskatzen du, zabor bilketa sistema egokia egin eta modu egokian tratatuz gero, ahalik eta hondakin gutxien sortzearen aldekoa delako.
4. Udal hau makroespetzearen eraikuntzaren aurka dago, egun espetze sistemaren helburua ez delako jendea bergizarteratzea, emozionalki eta psikologikoki suntsitzea baino. Makroespetzearen eraikitzea bera eta kudeaketa interes ekonomiko pribatuetan oinarritzen da. Politika soziala ezberdina izango balitz, ez litzateke espetxerik beharko.
5. Azkenik, udalerrian bertan izan duten eragina dutela eta, Udal honek bereziki Abiadura Handiko Trena eta honekin lotutako Tolarietako Subestazio Elektrikoa azpiegituren aurrean bere aurkakotasuna adierazten du honako arrazoi hauengatik:
 - Orain arte erabili ditugun bide, erreka, baso eta gainontzeko natur baliabideak, erabilera publikoa duten ondasunak guztiak, disfrutatzen jarraitzeko eskubidea dugulako, eta azpiegitura lan-handi hauek erabat txikituko eta hondatuko dituztelako.
 - Errentagarritasun ekonomikoari dagokionez, Informazio Estudioa 1998an egin zen, eta estimazioetan oinarrituta dago. Geroztik hainbat ikerketa egin dira, eta emaitzek AHTa ez eraikitzea aholkatu zuten (Bemejo 2004) eta azkenik, atzeraldia etorri da ekonomian, eta hasiera batean AHTa justifikatzeko erabili ziren argudioek (garraioaren eta ekonomiaren hazkunde etengabea) ez dutelako inolako zentzurik.
 - AHTaren eraikuntzak hainbat erreka eta iturburu hondatuko ditu, ikusi besterik ez dago Osiñagako Alimoi errekan izaten ari den eragina egun.
 - Azken batean, Ingurugiroan izango duen kalteak atzerabueltarik ez du izango eta horregatik eskatzen dugu AHTaren obrak eta proiektu osoa geratzea, behin betiko bertan behera gelditzea, hain zuzen ere.
 - AHTa ez delako komunikabidea, isolabidea baizik, urrun dauen hiriak lotuko ditu, baina gertu dauden auzo eta herriak urrunduak ditu, lurraldearen zatiketa handia eragingo baitu, eta ingurukoaren harremank eta bizimodua erabat aldatuko dituelako.
 - Subestazio elektrikoari dagokionez, AHTak behar duen izugarritzko argindar kopurua banatzeko helburua du, eta 400000 voltioko potentzia izango du. Honek sortzen duen eremu elektromagnetikoak herritarron osasunarengan eragiten dituen kalteak oso larriak dira. Honetaz gain, zarata handia sortuko du, eta suteen arriskua handia da honen inguruan.

Eskaera honen sinatzaileek Udaltzari akordioa puntuz puntu bozkatzeko aukera ematen diote, hala nahi izanez gero.

Udalbatzako Barrio (H1!) jaunaren kontrako botoarekin onartu egin da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 8:10 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatu dut.